

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak hirigintza konponbide bideragarri bat ekarri du Castejonen Trenasa eta trenbidearen arteko konexioa bermatzeko

Manu Ayerdi lehendakariordeak nabarmendu du industria suspertzearen alde Nasuvinsak, Udaletxeak eta enpresak sinatutako hitzarmenak suposatu duen aurrera pausu garrantzitsua, 2010etik blokeatuta dagoen Plan Bereziari berriz heltzeko

Asteartea, 2018.eko irailak 25

Foru Gobernuak, azkenik, hirigintza konponbide partziala, baina bideragarria eta berehalakoa, aurkitu eta ekarri du, Castejon erriberako herriko Industrialdera, Trenes de Navarra SA (Trenasa) plantaren eta merkantziak ateratzeko trenbidearen arteko zuzeneko konexioa bermatzeko. Merkantziak lurreko garraioaren ordeztuz atera ahal izateko lotura hau elementu estrategikoa izan da plan esportatzaile hau finkatzeko eta handitzeko prozesuan. Haren negozio planak ekoizpen ildo berriak ateratzeko helburua dauka, bai tren bagoien fabrikazioan eta bai autobus hibridoena, eta baita langileen kopurua 150etik 200era igotzeko ere.

Trenasa ekoizpen plantaren eta tren linearen arteko konexioa – funtsezko elementua bideragarritasun planean, Castejonen kokatutako CAFen filialean fabrikatzen diren balioak zuzenean ateratzeko aukera ematen baitu – enpresak burutu nahi zuen eta duela hamar urte enkistatutako proiektu bat zen. Enpresa bera Plan Berezi bat 2010ean izapidetzen hasi zen eta Udaletxearekin hitzarmen bat sinatu zuen, hura inoiz bete ez izan arren, Nafarroako Auzitegi Gorenak (TSJN) bertan behera utzi baitzuen 2015ean epai irmoa emanez, eta ondorioz, Castejoneko industrialdea garatzeko prozesua dike lehorrean geratu zen.

Azkenik, auzitan zegoen partzeletako bat eskuratu ondoren, Nasuvinsa sozietate publikoak konponbide bat ekarri zuen. Horrek industria eremu osoa ez berrantolatu arren, gutxienez, tren enpresari berehalako konponbide bat ekarri zion. Nafarroako Gobernuaren Ekonomia



Ezkerretik, eskuinera: Vicente Aragón, Castejoneko Hirigintza zinegotzia; David Álvarez, Castejoneko alkatea; Ayerdi lehendakariordea; Luis Fernández, Trenasako zuzendari nagusia eta José M^a Aierdi, Nasuvinsako zuzendari kudeatzailea.

Garapenerako Manu Ayerdi lehendakariordea, gaur, hitzarmen hau Nasuvinsak, Trenasak eta Castejoneko Udalak sinatzeko ekitaldian buruzagi izan da, auzi hau ebazteko eta Plan Berezia desblokeatzeko.

“Erriberako industria sustatzearen alde egitea”

Gobernuaren ekonomia lehendakariordeak, dokumentua Castejoneko kokatutako enpresaren instalazioetan sinatzeko ekitaldiaren amaieran, zera adierazi du: “akordio zehatz eta partzial honek industria sustatzeko aurrera pausu garrantzitsua suposatzen du, eta, halaber, Administrazioak jorratu behar duen zereginaren beste adibide bat da, lanari ekiteko eta lurraldean bertako soluzioak aurkitzeko, kasu honetan arrazoizko hirigintza erantzun bideragarria eta berehalakoa, eskualdean ezaguna den enpresa bat lehenera ekartzeko planak erraztuko dituena eta hurrengo hilabeteotan 50 lanpostu sortuko dituena”.

Honi dagokionez, Manu Ayerdik azpimarratu du “Gobernu honek Erriberako ekonomia garatzearen eta suspertzearen alde nahita nahiez lan egin behar du eta horrekiko konpromisoa gain hartu behar du, krisialdian bereziki astindua izan zen eskualde bat delako, eta are gehiago; automobilgintzako enpresa bat delako, alegia; eskualde hau dibertsifikatzeko, industria sustatzeko eta bertan enplegua sortzeko funtsezko sektorea, eta Nafarroako garapenerako S3 estrategiarekin bat egina”.

Trenasarako konponbidea blokeatu zenez, Nasuvinsa, zeinek azken hilabeteotan hainbat aukera aurkeztu dituen – nahiz eta horietako batzuk garestiak izan eta ezinezko bilakatzen zituen hirigintza izapide latz suposatuz azkenik, partela bat eskuratzeko akordio bat sinatu du, Trenasari laga dio trenbidearekin konektatzeko eta merkantzien garraioa ibilgailuen eta oinezkoen igarotzearekin bateratzen duen jarduerari bati ekin egiteko, Jerónimo Marco kalean, eta, azken finean, Castejoneko Udalaren Plan Berezia desblokeatzeko.

Agintaldi honen hasieratik, Nafarroako Gobernuaren eta Castejoneko Udalaren arteko kolaborazio estua eta azken honen inplikazioa azpimarragarriak izan dira aurreko legegaldetik konpondu gabeko arazo konplexuari irtenbidea emateko. Hasiera bateko irtenbideak kontuan hartu eta lehentasuna eman nahi izan zion bizilagun kaltetuen eskaerei, baina hauek izan ziren, azkenean, arazoarekin amaitzeko espero zen konponbide egokia lortzeko Nasuvinsak, Trenasak eta Udalak berak egindako ahalegina onartu ez zutenak. Egoera honek gaurkoan sinatutako hitzarmena ekarri du konponbide gisa.

Miloi erdi euroko inbertsioa

Beste hiru alderdiekin hitzartutako akordioaren arabera – jabea, enpresa eta Udala-, hirigintza sozietate publikoak 163.000 euroko ordainketa gain hartu du, partela eskuratzeko, eta fabrikak, berriz, 350.000 euro inbertituko ditu bideetako azpiegituren obrei eta trenbide egokitzeko lanei ekin egiteko, lurzorua aldi zehaztugabez doan lagatzearen truke, bere industria jarduerara garatzen duen bitartean. Horrela, miloi erdi euro baino pixka gehiagotan, Gobernuak konponbide bat eskaini dio duela hamar urte enkistatuta zegoen egoera bati.

Trenasak Castejoneko kokatuta duen enpresak egoera latza jasan zuen eta baita EEE bat ere, krisialdian. Hala ere, azken urte honetan, Beasaingo (Gipuzkoa) Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles (CAF) fabrikaren filial gisa, bere jarduerara igo du, eta langileen kopurua bikoiztera iritsi da.

Azken urtean, enpresak bere ekoizpena nabarmen igo eta aurreikusi du bagoiak eta tren elementuak fabrikatzea azpiegitura banarako, Ekuadorren, Eskozian eta AEBn, besteak beste. Era berean, 2019. urtean zehar beste eskaerei heltzea aurreikusi du Zelanda Berrian eta Filipinetan. Trenasak bere jarduerara handitzeko asmoa du ere eta Castejoneko plantara garraio publikorako autobus hibridoak fabrikatzeko ildo berri bat ekarri nahi du. VECTIA izango da produkzio honen arduraduna, Sodenak enpresa honetan egindako inbertsioaren ostean.